



I. ERANSKINA

KONTRATUA EGIKARITZEKO BALDINTZA BEREZIAK BETETZEAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

_____, jauna/andrea, ondorio hauetarako helbide hau duena: _____
(PK _____, _____ kalea,
_____ zk., _____ solairua, _____ NAN zenbakiduna,
_____ izenean ari da, [ahalardearen eta abar] bidez, eta honako helbide hau
du: _____ (herria), _____ PK), _____
kalea, _____ zk., _____ solairua, _____ telefonoa eta IKZ zenbakia. _____.

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

1.- Kontratatzeko gaitasuna.- _____(e)k betetzen ditu Administrazioarekin kontratuak egiteko legez ezarritako baldintzak, baita kontratazio hau arautzen duten agirietan ezarritako baldintzak ere.

Behean sinatu duen pertsonak, ordezkatzen duen pertsona fisiko/juridikoak eta sozietateko gobernu-organoko kideek (pertsona juridikoaren kasuan) ez dute Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluan zerrendatutako kontratatze debekurik. Era berean, idatziz jasota gelditzen da aipatu enpresak egunean dituela zerga-obligazioak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak.

2.- Jurisdikzioa. (Enpresa atzerritarra bada) Espainiako edozein ordenatuko epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren pean jartzen da, kontratuak zuzenean edo zeharka ekar ditzakeen gorabehera guztietarako, eta, behar izanez gero, uko egingo dio lizitatzailari egokitu liezaiokeen atzerriko jurisdikzio-eskumenari.

3.- Araudia betetzea. Eskaintza lantzeko orduan, kontuan izan da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan aplikatu beharreko araudia, Europar Batasuneko zuzenbidean, estatuko zuzenbidean, hitzarmen kolektiboetan edo Estatua lotesten duten legedian eta nazioarteko zuzenbidearen xedapenetan ezarritako eta ingurumen-, gizarte- eta lan-arloetan aplikatu beharreko araudia; hala, bermaturik egongo dira kontratua egikaritzean parte hartuko duten langileen lan-eskubideak.

Kontratistak bere gain hartzen du produkzio-kate osoan langileen oinarritzko eskubideak errespetatzeko eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarritzko konbentzioak betetzeko betebeharra; batez ere, honako hauek:

- 29. eta 105. konbentzioak, bortxazko lanak desagerrarazteari buruzkoak.
- 87. eta 98. konbentzioak, askatasun sindikalari, elkartzeko askatasunari eta negoziazio kolektiboari buruzkoak.
- 100. Konbentzioa, balio berdineko lanetan gizonen eskulana eta emakumeen eskulana berdin ordaintzeari buruzkoa.



- 111. Konbentzioa, lana emateko eta lan-baldintzak ezartzeko orduan diskriminatzearen aurkakoa (arrazza, kolorea, sexua, erlijioa, iritzi politikoa, jatorri nazionala edo jatorri soziala direla eta).
- 138. Konbentzioa, haurren esplotazioa eta lana ezabatzeari buruzkoa.
- 182. Konbentzioa, haurren lan mota txarrenak debekatzeari eta berehala ezabatzeko ekintzari buruzkoa.

4.- Desgaitasuna duten pertsonen lana emateko legezko betebeharra.- Kontratuaren adjudikaziodun gertatuz gero, kontratuak dirauen bitartean, kontratistak honako hauek beteko ditu: pertsonalaren 100eko 2 gutxienez desgaitasuna duten pertsonak izatea, enpresak 50 langile edo gehiago baditu, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren Testu Bateginaren 42. artikuluan ezarritakoarekin bat (azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen testu hori); bestela, apirilaren 8ko 364/2005 Errege Dekretuan ezarritako ordezkio neurriak ezarri beharko ditu.

Era berean, konpromisoa hartzen du betebeharrak hori bete duela egiaztatzeko, kontratuaren arduradunak hala eskatzen badiu, kontratuaren indarraldian zehar, eta, edonola ere, azken faktura bidali aurretik.

5.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko legezko betebeharra.- Kontratuaren adjudikaziodun izanez gero, kontratua indarrean dagoen bitartean, kontratistak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko betebeharra hartzen du bere gain, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoaren arabera, eta _____ langile dituela aitortzen du. Halaber, berdintasunerako plan bat duela egiaztatzeko konpromisoa hartzen du, bai legezko betebeharra duenean (250 langile baino gehiago), bai betebeharrak konbentzionala duenean, hala eskatzen badiu kontratuaren arduradunak, kontratuaren indarraldiaren edozein unetan edo, edonola ere, azken faktura bidali baino lehen.

6.- Berdinketa ebazteko berariazko adjudikazio-irizpideak.- Berdinketak ebazteko irizpideak egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztuko du, adjudikazio-irizpideak aplikatu ondoren berdinketa gertatzen den kasuetan. Baldintzak betetzen direla berresteko une erabakigarria proposamenak aurkezteko epea amaitzen denekoa izango da.

" Desgaitasuna.- Horretarako emandako ziurtagiri bidez edo dagozkion agirien bidez egiaztatuko da: a) enpresako langileen 100eko 2 baino gehiago desgaituak direla, eta b) plantillako langile finkoen artean, desgaitasuna dutenen portzentajea.

" Laneratzeko enpresa.- Abenduaren 13ko 44/2007 Legean arautzen diren laneratzeko enpresen kasuan, ziurtagiri bidez edo dagozkion agirien bidez egiaztatuko da.

" Irabazteko asmorik gabeko erakundeak.- Kasuan kasuko erregistro ofizialean inskribatutako estatutu edo sortze-arauen bitartez egiaztatuko da.

" Bidezko merkataritza.- Bidezko merkataritzako erakundearen izaera aitortzen duen frogagiriaren bidez egiaztatuko da.

" Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundea.- Erakunde publiko batek horretarako emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko beharko da.



7.- Azpikontratazioa egikaritze-fasean.-

- ☐ Aurreikusita du kontratuaren zenbatekoaren % _____ azpikontratatzea (Bete ehunekoa, gehienez ere bi hamartarrekin. Osoko ehuneko hori ez da inoiz izango baldintza-agirietan ezarritako muga baino handiagoa edo, horrelakorik ezean, lizitazioa arautzen duen kontratuei buruzko araudian adierazitakoa baino handiagoa. Era berean, portzentaje horrek bat etorri behar du banakatutako portzentajeen baturarekin), banakapen honen arabera:

Partidaren izena edo azpikontratatu kontratuaren zatia	izena nahi den	Azpikontaristaren izena/izen soziala edo enpresa-profila	Gutizkoa oinarri hartuta adierazten duen portzentajea (ehunekoetan eta gehienez ere 2 hamartarrekin)

- ☐ EZ du azpikontratatzeko asmorik.
- ☐ Baldintza-agirietan ezarritako azpikontratatzeko betebeharra betez, kontratuaren zati bat _____ izena duen enpresari azpikontratatu dio, horretarako gaitasun profesionala edo sailkapena baitu (Baldintza-agirietan kontratuaren zati bat azpikontratatzeko agintzen denean soilik).

Azpikontratatz gero, ordezkatz duen enpresak azpikontaristei edo hornitzaileei hitzartutako prezioak ordaintzeko betebeharra bere gain hartzen du, Administrazioaren eta kontratistaren arteko harremanetarako SPKln ezarritakoa baino luzeagoa izan ezin den epean, eta azpikontaristak edo hornitzaileak bidalitako faktura –data eta dagokion aldia adierazita– kontratista nagusiak onartzen duen datatik hasiko da zenbatzen.

8.- Merkataritza Kodearen 42.1 artikulua.- Ordezkatzen duen enpresa:

- ☐ "BADAGO Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan xedatzen diren kasuetako batean.
- ☐ "EZ DAGO Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan xedatzen diren kasuetako batean.

Erantzuna baiezkoa bada:

- ☐ " EZ da aurkeztu kontratuaren adjudikaziora banakako proposamena aurkeztzen duen talde bereko beste inolako enpresarekin batera, ezta Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan jasotako kasuren batean dagoen ezeinekin ere.
- ☐ " BAI, banakako proposamena aurkeztzen duten talde bereko beste enpresa batzuekin parte hartzen du kontratuaren adjudikazioan, edo Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan jasotako kasuren batean dagoenen batekin, eta honako hauek dira:



IFZ	Sozietatearen izena

9.- Konpromisoa hartzen du Administrazio Klausula Berezien Agiri honetan eta bere azalean aipatutako baldintza bereziak betetzeko, baita Baldintza Tekniko Berezien Agirian jasotako baldintzak betetzeko ere.

Eta hala jasota gera dadin eta behar diren ondorioak izan ditzan adierazten du,

[Tokian], [egunean]

Sin.

DATUEN BABESA: Ukitutako pertsonaren baimenarekin bildu dira formulario honetan agertzen diren datu pertsonalak. Horiei tratamendu automatizatua emango zaie eta Sukarrietako Udalaren jabetzako fitxategi egokian sartuko dira, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari aitortuta. Datu horiek soil-soilik udal-kudeaketarako erabiliko dira, eta beste administrazio publiko batzuei edo gainerakoei laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie Datu Pertsonalak Babesteari buruzko araudi egokian xedatutako kasuetan. Nahi izatekotan, datuak ikusi, zuzendu, baliogabetu eta horien aurka egiteko eskubideak gauzatu ahaliko dira, aipatutako legean xedatu bezala

EGINBIDEA.- Nik, idazkariak, egiten dut, Udalbatzak baldintza-agiri hau 2021eko maiatzaren 28ko bilkuran onartu egin zuela, jasota gera dadin.

